

Azken errementaria

Ni naiz errementari bat. Badakizu aritzen naiz burni lanian; ^hasi nintzen 13 urtekin eskoltikan, 13 urtekin gelditu nintzen eta aittak erain zin lanera, bagenun bertze peon bat ta hura aldegin zuenean erran zun:

-E naiz inori gehigo irausten ariko!

Ta han ez zen ezer erraterikan, han in behar zenun nahi ta nahiez erraten zena. Orain baduzue gaztiak halak onahi duzuenin, hau nahi zu edo hori ez dut nahi edo handitzerakun hola nahi dut izan. Han ez zen olko ametsik itzerikan hor hator ta hintzak.

Ta hantxe hasi ginen ta azkenin ez zen gosia bertzerikan eta ari izan behar izan genun mantendu trukana, Iruritan lanin aritu naiz ni. 15 urtetikan 16 arte. Baba ginera mantenua eta ez nolana hiku baba horretako madua halakua hor ziken. Kutxarin bi ez tziren kabitzen oliurik ere ez zen ta hemengo Lesakako harakindegiko hezur zahar ta sega zahar guztiekin mamituta, ogia bai ederra genun hori egia da.

Goizin izaten genun estraordinario bezela patata egosia eta egurdin baba eta arratsin baba, eta lo ez guatzin ere, ainarrazko kamaltzar batzutan egiten genun lo: Ño hola zen bizia! Ni bino ukerguk ere baziren, beretze batzuk mendin ibiltzen ziren, ni idorra, euria ittin idorra izaten nun. Ta hortxe aritzen nintzen, hola ailetu naiz. Nere denbora guzin burnila bakarrik gero lanpara ta holko zera batzuk hasi nintzen egiten

leno berriz ate ta balkoia ta holakuk itten nittun binon, orain lanparak eta zahartu naizenin.

Lanpara batzuk egin ditut politat direla diote batzuk ez takit hala da nik neretzako ez da deus politikan. Nere andriak ere uain ari da konturatzen, alaba ere bai hola zenbait gauza egin dittut ta erraja bat egin nun etxerako ta erran tzin albakak: Oantxe, auxe da balio duna in tzuna! Ta geroztik nunbait bertzik erran diate lanak onak itten ttuztela, ta oain hasi da gustatzen nik indako lanak.

Hori da nere izaera oain zahartu jubilatuta ... orain ari naiz neretzako itten neretzat edo nerintzako, battut bi iloba tresna zahar ta ek nozpaittere akaso konturatuko dire balio tela eta bestela bota txatarrara.

Leno aritzen ginen erremintak zorrozten erremintak baziren golde makinak ta badakizu lehen denak lanbrantzatik bizi ziren; ordun baziren arotxari gehigo oain akabila da hau ni naiz noski bakarra hemen aritzen naizena, gazterik ez ta inor rere binon ez ta lanikan ere zertikan ja hemengo fabrika hok etorriden ezkerostik ez ta itten lur lanik deus ere, leno sagarra ta patata dena bertan itten ziren oain berriz kanpotikan erosi itten ttire. Oain ari naiz, bueno oain ere ikasten ari naiz neone beti lanin, beti ikasten ari naiz. Orain ari naiz itten Santxo panza ta Frago de Voulcano ditzen dioten hori ta holako katxarro batzuk itten ari naiz, eta klaro guatzin ispiraziuk izaten ditut, ohin nagolikan. Badut ina bertzen bat guardiazibil pareja bateri, kontrabandista bateri, paketia kentzeko bidin ateitzen ... ta holako bertzen batzuk battuk eginak. Oain ere ari naiz bertzen ero golpe bat egiten, eruk garela erraten te. Bertze bat badut egina, itten ari naiz oain gizon erdi ijito do pobre eritakua, giroz ta gainekuz lanaz ere gogorik

gabekua den hoitako bat, negun nolabait hotz gorria pasatu du negua,ta txoriak ere badakizu neguk nola pasatzen ttuzten, ta han hari da arbol baten txoria kantatzen, ta harek egiten dio galdera:

-Kantazak, kantazak, oroitzen hiaiz negun ze hotzak pasatu ttugun!

Hura itten ari naiz ba, ta bertso hori, bueno filosofia hori, gogotu zitzaidan lehengandin bertze batena ta bihamunin jeiki nintzenin ahaztu in zian. Guatzin gogotzen zaizkit gauza ok, oaingun ernatu naiz hura ateit zen bezela jeiki, ta idatzi, eskribittu. Ta han dut egina hura. Bai hurrengo egunin, pentsatu dut eittia nere andria karo, ingo dut taluk erretzen ari dela. Ateri behar diot retratuk, gero mutikukeri ere bilobari do. Pentsatzen dut ittia, ez takit inen duten do ez...

Gero, zuk nahi zenun jakin, burnia lana nola den... hemen baitut onduan bertze neskax bat. Burnilan lana... hartutzen zu burni bat ta sun berotzen zunin, ongi berotzin, gelditzen da edozein gauza bezain beratsa. Ordun, mailukin jo ta zabaldu o luzatu o nahizuna itten zu, karo urte asko pasatuta... neri ez zait pasatu, halako bertze arotx hareri bezala, bat joan zen arotxa ikastera, ta arotxa ikastera joan zen ta erran zion arotx nagusiak:

-Nola ikasi nahi duk, begira edo lanian?

Ta bertzik erran zion:

- Begira.

-Bueno jardi hor exeridi hor.

Ta egondu zen begira 6 bat hilaute do, ta attak jarri zion aroxtegila tipo horrerri, ta mutiko hori hasi zen, berotu zun burnila... ta hasi zen joka ta erran zion attak:

-Ze in behar dek seme horrekin?

Ta mutikuk erran zion:

-Luzia ateitzen bada, gerrena; ta zabaltzen bada pala ta okerra ateitzen bada.. itagila!

Bueno, aixtin erran dizut battuztela hola zenbait gauza eginak, hetik bat zen badakin igesias Sistina, edo ez takik izena hola zuzen erraten ten ere... Erroman omen dena. Ta ikusi dut, haren retratro bat libro batin. Ikusi nun bibliotekan, ta in nun hura: Adan ta Evan pekatua. Hura lehenbiziko pekatua in antzintikan, ta gero badakizu bidali omen zutela patadisotikan... ta badakizu larru gorritan nola ageltitu ziren... bere tresna guztik agerian beharko zittuzten izan! Ta Ladixek, biloba ttikiak erran tzin:

-Oi atatxi iduin du kainoia, bere ruedakin ta guzti!

Ta ez dakit, kanoian trazak aurkitu zittun harek... nik ez nun intentzio horrekin egin.

Nik koskoilun ideakin in nun, ta hola hala aritzen gera .

Egin ttuzten gauza okin, erran ziaten herriko etxekuk baita esposizio gisakuk egiteko feritan. Ta in nun, patu nittun feritan arkupittan, bino ferira etortzen den jendia ere badakizu kultura gure gisa nolakua izaten ahal duen... Ta badut anai bat, harek in zula errota bat. Hor uharteko errota deitzen diote... berak ina da. Ta hura han zegon montajia hin zion, han herriko itxik ta beko arkupe hartan.

Nik berriz jarri nittun nik ttuzten horik, lehen erran ttuzten Adan ta Eva hori ta Santxo panza Dragfo Volcano... ta erran zian nik ahalde egin nun. Errantzian anaiak:

-Hi badakik,...

Hortako azpian taulak tapatzeko, eman zian andriak guatzin gaineko koltxila edo, zera horitako bat. Eskuz ina omen zen arizkua, ta hura jarri genuen ta aren gainen intako gauza horik.

Ta erran zin, etor omen zirela bi emakume kriston martxien, ta Bernardok anaiak erran zian, ze ingo ote dute ok, eraman... ta rau hartu omen zuten zera hori... koltxila hori. Ta begitu zioten koltxilari, ta ez baitziren erreparatu gainen deus bazulikan ere, horretaz aunitzentzat itten zu esposi bat do... zerbait bakizu segun nontzat egiten duzun. Harentzat obia izanen zen gainin patu izan banun platera bat ilar, akaso ordun ikusko zuten. Auniztan izaten da lanak non in bar diren ta nola in behar diran, bertze batzuntat ez tu merezi hola aritzia lanin ere.

Oain ari naiz, bertako kultura deitzen dioten hori itten. Ta in dut, ikatzgile bat badut ina txondorra gainik ikatza, txondorra pizten ari dela ta bertzia aren laguna berriz bertzia prestatzen ari dela. Badut ere artzai bat, artzai bat gadetzen dionikan uste dut galdetzen izan behar dion ja aber auntsak ikusi ttun, ta nere kuttatua berriz txondora gainian dagona, Mariano. Ta uain bertzia... uain bertzia badut ina guardazibil zera bat, kontrabandun baduude kontrabandistak, bere bizkarrin paketikin ta bi guardia zibail han dagozte eskinian gordeta, dauzte arbol zur motza baten onduan. Bat berria zen, bertzia berriz, zaharra ta bazekin ongi zer gertatzen zen. Berriak in zun sumatu ... sumatu zun norbaittere heldu zela, binon zer zuten kontrabandistak... bidali zuten gazte bat aintzinean, ja alto norbaitëk itten zion edo ez. Hola jakinen baitzuten, bat traba bidia zegon edo ez. Ez bazen garbia, bertze martxa bat artzeko.

Bai, guardazibil zaharrak, gaztia abiatu zenin paketia kendu behar ziola erran zion, guardiazibil zaharrak erderaz erran zion:

- Espera espera no ves que viene uno solo, y entonces déjale. Se creerán que no hay nadie y todos vendrán con fiaus y luego le quitamos todos los paquetes ala vez.

**Hori da honen istoriua,
bakoitzan bat
jartzen baitik beria.**

GAIA: 2 urte luzez soldaduxka egin ondoren Euskal Herrira bueltan doan tren batetan dagoen mutil bat naiz.

-1-

Hamaika bertso hauetan
nahi nuke zerbait kontatu,
nere maitasun garaia
bertsotan argitaratu,
larrosa kolore zena
nola ilun zen bukatu
egunero nik burutan
tamalez dut gogoratu,
nahiz eta hau ahateko
kemenez nahizen saiatu...
le(he)n bezala jarraitzen du
ezer ezin da aldatu,
horregatik lotsa gabe
nahi nuke aldarrikatu:
bi urte luze hauetan
Maritxu zaitut maitatu!

-2-

Hemezortzi urte bete
behintzat ez nintzen zaharra
zorionekoa nuen
nere biotzeko arra,
baina gauza on guztiak
badute bere adarra
oraindikan soldaduka
nuen nik egin beharra.
Tamalez azkarra izan zen
militarren deiadarra
Andaluzia aldean
jarrita nuen Iparra,
sekuan ez dut aztuko
nere_egoera lakarra
nere Maritxu galtzea
gogoan nuen bakarra

Euskal Herria utzirik
Andaluzia aldera
tren z(ha)r batean joan nintzen
atzerritarren antzera,
galdua ibili nintzen
kalez batetik bestera,
inor ezagutu gabe
atera nintzen aurrera,
traba guztiak baztertuz
ikasi nuen erdera,
nahiz eta etsi etsian
nengoen goitik behera
ahots bat entzuten nuen:
Azkar dago bukaera!
Hilabete ilun hoi
argitasuna zen bera.

Jada mudurri egunak
neretzat bukatu dira
azkar emango baitiot
nere bitzari bira
soldaduxka bukatuta
berriro gure kabira
trena martxan jarri eta
nere begien dizdira
azkar malko potoloak
jeitsi dira aurpegira
zoriontsu mintzateke
behintza horrela sikira
hurrego egun guztiak
horrelakoak balira
azkar denak itzuliko
baikara Euskal Herrira

Azken errementaria

Ni errementari bat naiz, jada dakizun bezala, burni-lanean jarduten naiz. 13 urterekin eskolatik atera eta aitak lanera eramanez ninduen. Lehen beste langile bat bageneukan baina alde egin zuen eta aitak bere lanbidea ez ziola beste inori erakutsiko esan zuenean bertara eramanez ninduen ni. Izan ere garai haietan ez zegoen aukeratzetik, han derrigorrez nagusiak esaten zutena egin behar zen. Orain berriz gazteak, hainbat aukera dituzute, horrelakoa izan nahi dut, hau ez dut nahi ala hau nahi dut, ... Han, ni umea nintzenean, ez zegoen amets egiterik, etorri eta egin! Eta horrelaxe hasi nintzen gaur egun ogi bide daukadan errementaritzan.

Azkenean ere, gosea ailegatu zen Lesakara eta mantendu - trukean lan egiten hasi nintzen Iruritan, 15 urtetik 16 urte arte. Goizean sari gisa patata egosiak izaten genituen gosaltzeko, eguerdian eta afalorduan berriz babak izaten genituen beti, lo ainarrezko ohe batzuetan egiten genuen. Hala ere baziren gu baino okerrago bizi zirenak hots, mendian lan egiten zutenak,

nik behintzat, euria egiten zuenerako aterpe on bat neukan. Horrela ibiltzen nintzen eta horrela ailegatu naiz denbora guztian burnia lagun izanda.

Hasiera batean, balkoiak atek... egiten nituen, geroago lanparak eta horrelako bitxikeriak egiten ikasi nuen. Egin ditudan lanparak politak direla diote batzuek, baina ez dakit hala izango den. Bai nere andrea bai nere alaba, orain konturatu dira gauza politak egiten ditudala. Izan ere lehengoan, erraja bat egin nuen etxerako eta horrela mintzatu zitzaidan nere alaba bakarra nere lana ikusterakoan: oraintxe, hau da aita balio duena! Eta geroztik nere lanak onak direla esan didate lesakar askok. Orain zahartu eta berriki jubilatuta naizenez, neretzako egiten dut lan, neretzako edota nerentzako. Bi ilba tresna zahar baititut. Hauek ere akaso noizbait konturatuko dira balio dudala, eta horrela ez bada, txatarrara bota nazatela!

Lehen errementariak nekazaritzako erremintak zorrozten aritzen ginen, badakizu lehen denak labrantzatik bizi ginen, goldeak..zorrozten genituen. Baina orain, akabila da hau. Ni Lesakako azken errementaria naizela uste dut ez baitago lan honetan jardun nahi duen gazterik... Baina hala ere, lantegi hau etorri zenez geroztik gehienak bertan egiten dute lan, eta jada lur lanak baztertu egin dira, lehen patatak edo eta sagarrak bertan egiten genituen, orain berriz dendetan erosten dugu.

Orain.., beno orain ere ikasten ari naiz, izan ere lana egiten den bitartean beti zertxobait ikasten da. Santxo panza eta Frango de Volcano deritzon hoiei egiten ari naiz, noski hauek egiteko lehenik ispiratu behar dut. Idei gehienak ohean nagoenean etortzen zaizkit burura.

Oraintxe gogoratu dut, duela gutxi egin nuen lana. Guardiazibil bikotea zegoen mendian, kontrabandisten esperuan... eta holako beste mila ditut eginak. Orain ere beste ero golpe bat ari naiz egiten, eroak gaudela esaten digute batzuek... ijito bat da, diruz eta gogo faltan, lanaz ere eskas dabilen hoietako bat... neguan seguruenik hotz gorriak pasa ditu, eta udaberria ailegatzerakoan han ari zen zuhaitz baten adarretan txoritxo bat kantari, eta horrela mintzaten zaio ijitoa:

-Kantazak, kantazak baina gogoratzen haiz zer nolako negu hotzak pasa ditugun?

Lan honen bertsoa, edo filosofia hau hobe esanda, ohean burutu zitzaidan, baina bihar amunean esnatu eta ahaztu egin nuen. Horregatik orain ohean banago eta ideien bat izaten badut, alferkeriak alde batera utziz, jeiki eta paper batetan idazten ditut.

Hurrengo lanaren gaia, seguruenik nere andrea izango da, taloak erretzen jarriko dut, horretarako argazki pare batzuk atera beharko dizkiot lehenago. Nere bilobak noizbaitere margotuko dituztela uste dut, baina ez dakit...

Zuk burnia nola lantzen den jakin nahi zenuen ezta? Hemen neskatxa bat baitut ondoan... Burnia suan berotzen denean edozein gauza baina beratsagoa jartzen da, ondorioz mailua erabiliz gero, burni zatia, zabaldu, luzatu... nahi duzuna egin dezakezu. Noski niri behintzat ez zait inoiz gertatu behin arotz hasi berri bati gertatu zitzaiona. Arotz lana ikastera joan zen eta arotz nagusiak hala esan zion:

- Nola ikasi nahi duk, begira edo lanian?
- Begira. Erantzun zion bertzeak. Arotz berriak 6 hilabete inguru egon zen begira aitak azkenean arotzegi bat ezarri zion arte.

Arotzegian zeudela, semea burnia berotzen ari zelarik horrela mintzatu zen bere aita:

- Zer egin behar dek seme horrekin?

Semeak horrela erantzun zion:

- Luzea ateratzen bada, gerrena, zabaltzen bada pala eta okerra ateratzen bada berriz, itagia...

Beno, zenbait gauza eginak ditudala aipatu dut lehen, hauetako bat, **Sistina** eliza... ez dakit bere izena zuzen esaten dudan... Erroman omen dagoen hori... Herriko liburutegian nintzelarik bere argazki bat ikusi nuen liburu batetan eta honi esker Adan eta Eva margotzea burutu zitzaidan.

Lehendabizi pekatua egin baino lehen marraztu nituen, eta badakizu gero paradisuatik badali zituzten, gainera larrugorritan gelditu omen ziren, beraien tresnak agerian izan beharko zituzten... eta hor etorri zen nere biloba txikiena Ladix:

-Aitatxi! Kainoiak dirudite, gurpilak eta guzti!

Ladixek zorionez edo zoritxarrez, kainoien trazak aurkitu zizkion, nik ordean ez nituen intentzio horrekin egin, nik koxkoiluak egin nahi nituen!

Denboran zehar egin ditudan gauza guzti hauekin, herriko etxeak, ferietako esposizio txiki bat egiteko eskatu zidan duela urte pare bat. Eta Lesakako arkupetan jarri nituen nere lanak, eta nere andreak berak eskuz egindako arizko koltxila edo halako bat jarri zuen azpian.

Orduan, nere anaia den Bernardo hurbildu eta ni erakusketan egon ez nintzen bitartean pasa zena kontatu zidan. Berak zioenez, bi andre etorri ziren sekulako abiaduran, eta koltxila begiratu eta gainean zegoenaz erreparatu gabe handik tiratu eta koltxila berekin eramaten zuten bitartean nik egindako lan guztiak jada lurrean zeuden. Badakizu gaur egun dagoen kultura... askoz hobeto izango zen nere emazteak egindako koltxilaren gainean babarrun plater handi bat jarri izan banu!

Kulturaz hitzegiterakoan, orain burura etorri berri zait, arotztegian orain egiten ari naizen lana. Ikazgile bat da, txodorrean lan egiten. Txondorra pizten ari den bitartean bere lagunak ere beste txondor bat egiten ari da. Orduan artzai bat hurbiltzen da eta ea bere auntzak ikusi dituzten galdetzen dio nere, kunatari Marianori. Badut ere beste bat, lehen ere aipatu dudana, guardia zibil bikote bat dago mendian kontrabandisten esperuan, eta kontrabandistak ere hor daude mendian gora mendian behera. Guardia zibilak zuhaitz argal baten atzean zeuden gordeta, eta guardia zibil gazteenak zerbait aditu zuen, horregatik azkar prestatu zen segituan ateratzeko. Baina orduan guardia zibil zaharrak horrela esan zion, gaztekeraz noski:

- ¡Espera, espera, no ves que tan solo viene uno, déjale que pase y sus amigos vendrán confiados, pues pensarán que no hay nadie, y les quitaremos todos los paquetes a la vez!

*Hori da honen istorioa, nik
egiten dudan lan
bakoitzari, istorio txiki bat
jartzen baitiot.*